

**Banku-negoio tipikoaren** bilakaera izan da gakoetako bat, % 5 hazi baita

## **Kutxabankek 250,5 milioi euroko irabazia lortu du hirugarren hiruhilekoan**

- **Testuinguru ezegonkorrean, inbertsio funtsetan hirugarren harpidetza garbi gehien izan du Taldeak berriro ere, 1.477 milioi eurotik gora**
- **Erakunde eta enpresen Handizkako Bankak kreditu-inbertsio produktiboa ia % 3,5 bultzatu du**
- **Aseguru-jarduerak ohikoa duen bilakaera onari eutsi dio eta 130,9 milioi euroko ekarpena egin dio emaitzen kontuari**
- **Salmenta guztien % 43 digitalak izan dira, eta Erakundearen bezeroen % 60 erabiltzaile digitalak dira dagoeneko**
- **Bankuak 172,6 milioi euro bideratu ditu horniduretara, kredituetan eta higiezinetan gerta liteken narriadurari erantzunez**
- **Berankortasun-tasa %1,4koa da, sektore osoko baxuena, urtean zehar zalantzazko aktiboen bolumena 231 milioi eurotan murriztu ostean**
- **Kalitate handieneko kaudimen ratioak alorreko lidergoan jarraitzen du, % 17,1eko CET1 eta % 48,08ko eraginkortasunarekin**

**2022ko urriaren 27an.** Kutxabank Taldeak **250,5 milioi** euroko irabazi garbia lortu du 2022ko hirugarren hiruhilekoaren amaieran, 2021eko irailaren amaieran baino % **42,1** gehiago eta pandemia baino lehen lortutako mailatik hurbil.

Ziurgabetasun handia eta testuinguru ekonomikoaren okertzea izan dira hiruhileko honetako ezaugarrietako batzuk, Ukrainako gerra ez aurrera ez atzera gelditu eta aurreikuspen makroekonomikoak beherantz berrikusi baitira.

Errusiako gasa moztu izanak, inflazioak eta interes-tasek Europako zenbait herrialde atzeraldi ekonomikoan sartzeko arriskua agerian utzi dute. Horrez gain, inflazioak maila historikoetaraino hazten jarraitu du, eta laguntzarako neurri publikoek ez dute nahi bezalako eraginik izan. Faktore horiek guztiek eragin handia izan dute finantza-merkatuetan, ezegonkortasun handia baitute eta, ondorioz, kudeatutako aktiboen balioak behera egin baitu.

Baldintza horien aurrean, Kutxabanken emaitzak bere **banku-negoio tipikoaren** bilakaera onean oinarritu dira, % **4,9** igo baita, **zerbitzuen, aseguruaren eta kudeatutako aktiboen** diru-sarrerek bultzatuta, % **6,9** hazi baitira.

**Interes-tasaren** kurbaren igoerak interesen marjina indartu du, Euriborra % 2,5etik gora kokatu ostean. Hala ere, zerbitzuek, balantzetik kanpoko baliabideek eta aseguruak sortutako diru-sarrerek gainditzen jarraitzen dute emaitzen konturako interes-marjinak egiten duen ekarpena, banku-negozio osoaren % **52** osatzen baitute.

**Aseguruaren negozioak** ohikoa duen indarrari eutsi dio urteko lehen bederatzi hilabeteetan, eta guztira **130,9 milioi** euroko ekarpena egin dio emaitzen kontuari, aurreko urtean baino % 8,8 handiagoa. **Bizitza aseguruak % 4** hazi dira, **heriotza aseguruak % 10**, eta **enpresek kontratatutako arrisku anitzeko aseguruak % 7**.

Negozioarentzat oso lehiakorra izan den testuinguruan, Kutxabankek merkatu-kuotak finkatu ditu **balantzetik kanpoko baliabideetan**, eta oinarrizko banku-produktuetan, hala nola **hipoteka-kredituetan** eta **kreditu pertsonaletan**.

Negozioaren bilakaera positiboari gehitu zaizkio **eraginkortasuna % 48,08raino hobetu** izana. **Kostuak ez handitzeko** estrategiaren baitan, ustiapen gastuak % **2,4** hazi dira, KPlaren eta bai Erakundearen beraren aurreikuspenen azpitik. Merkatuan nagusi den ziurgabetasuna kontuan hartuta, kreditu eta higiezin hornidura maila zorrotzari eutsi dio Bankuak, eta **172,6 milioi** euro bideratu dira **zuzkiduretar**a.

## **Inguruneak balantzetik kanpoko baliabideak baldintzatu ditu**

Aldakortasun eta ziurgabetasun handiko testuinguruan, nabarmentzekoa da Kutxabanke **administratutako bezeroen baliabideak % 0,6** hazi direla, **72.294 milioi** euroraino.

Kutxabank Taldea harpidetza garbi gehien dituen **hirugarren erakundea** izan da, **1.477 milioi** euroekin guztira, merkatuan sartu diren harpidetza garbi **guztien % 16**.

Merkatuaren konplexutasuna gorabehera, **inbertsio-funtsen merkatuan duen kuota oinarrizko 14 puntu hobetzea** lortu du Taldeak, Kutxabankeko epe luzerako aurrezkiak ezegonkortasun-egoeretan duen bilakaeraren ildotik.

**Kutxabank Taldeak 20.000 milioi** euro inguru ditu gaur egun inbertsio-funtsetan kudeatuta, eta bere merkatu-kuota % **6,8**koa da.

## **Kreditu-inbertsio produktiboak goranzko joerari eutsi dio**

Kreditu-inbertsio produktiboa ia **47.200 milioi** eurora iritsi da, hau da, % **3,4**ko igoera izan du, Banka Instituzionalak eta Enpresetakoak osatzen duten **Handizkako Bankaren** jarduerak bultzatuta.

**Txikizkako Bankan, hipoteka-mailegu** berrien errubrikak **2.669 milioi** euroraino egin du aurrera 2022ko lehen bederatz hilabeteetan. Hipoteka-negozioak merkatu-kuota naturalen gainetik mantentzen ditu kuotak, nahiz eta oso ingurune lehiakorra izan.

**Kontsumorako mailegu** berrien kontratazioa **413 milioi** eurora iritsi da, hau da, % **9,2** hobetu da 2021ekoaren aldean, % **4,5**eko aurrerapenarekin **Saltegi Kredituan**.

## Finantziazio-erritmo ona enpresetan

Bere enpresa bezeroentzako **finantzaketaren saldoak** % **3,2** hazten jarraitu du, 2.174 milioi euro gainditzeraino, eta, merkatuaren testuingurua gorabehera, berankortasuna kontrolpean izan du.

Kutxabankek eutsi egin dio negozio-arlo horren indarrari, eta **aktibo finkoaren** finantzaketan goranzko kurbari eutsi dio, % **93** hazi baita eta **274 milioi** eurora iritsi baita.

Bestalde, **aktibo zirkulatzailaren** finantzaketa-eragiketen, enpresa-negozioaren bilakaerarekin zuzenean lotutakoen, saldoa % **27** hazi da, % **28 deskontu komertziala**, eta % **19 kanpo-merkataritzako** eragiketen fakturazioa.

## Aseguru-jardueraren indarra

Kutxabank Segurosek **100.000 poliza berri** banatu ditu 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan.

Aseguru-katalogoko produktu guztiek igoera nabarmenak izan dituzte, bereziki aipagarria **heriotzen** arloan (% **10** igo da), kontsumo-maileguekin **konbinatutako produkzioan** (% **7** hazi da) eta **aldi baterako bizitzan** (% **4** igo da iazko irailaren aldean).

Kutxabank Segurosen poliza-stocka **933.000**koa da, eta jarduera honek guztira **130,9 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitza-kontura, % **8,8** gehiago, alegia.

## Sektore osoko berankortasunik txikiena

Kutxabank Taldearen **zalantzako aktibo**en saldoa **231 milioi** euro baino gehiago murriztu da 2022an.

Kutxabankek finantza-sektore osoko **berankortasun-ratiorik txikiena** du, abuztuan batez bestekoa % 3,86koa izan baitzen. Berandutzea oinarrizko 45 puntu hobetu da 2022an, eta gaur egun % **1,4**koa da.

**Covid neurriek ukituriko zorroei** dagokienez, Kutxabankek finantza-sektoreko berankortasun-tasa apalenetakoa du: % **4,1** luzamendu-zorroaren kasuan eta % **1**

abalatutako finantzaketaren kasuan, bi kasuetan sektorearen batez bestekoaren oso azpitik.

Funtsezko adierazleak	2022ko iraila
Berandutze Ratioa	% 1,4
ROTE	% 5,4
ROOCR (Kapital eskakizunaren gaineko errentagarritasuna)	% 8,2
ROA	% 0,4
Core Tier I	% 17,1

## Erabiltzaile digitalen % 60

Kutxabankek bere lurralde naturaletan bulego-sare handiena du, banka digitalak eskaintzen dituen erabilera-aukera ugariekin osatuta, horrek nabarmen handitu duelarik erabiltzaileen kopurua. Gaur egun, Kutxabank Taldeko bezeroen **% 59,5 erabiltzaile digitalak** dira.

Produktuak eta zerbitzuak kontratatzeko orduan, Kutxabankeko bezeroek gero eta gehiago aukeratzen dute Banka mugikorra eta Online banka erabiltzea. **Kanal digitalen bidezko salmentak** guztien **% 43,3** dira gaur egun.

Ohikoa denez, **Banka mugikorra** da urruneko zerbitzuen artean kanal gogokoena, eta **sarrera guztien % 80** baino gehiago dira.

## 1.500 milioitik gora finantzazio jasangarrian

Taldeak, urteko lehen 9 hilabeteetan, guztira **716 milioi** euro bideratu ditu Bankuaren bezero partikularrek energiari dagokionez **eraginkorrak diren etxebizitzak** finantza ditzaten, **Hipoteka Berdea** deritzonaren bidez, eta hori hipoteka-ekoizpen berriaren **% 23** izan da, baita **'Aseguru Berdea'**ren bidez babesteko ere, hor **poliza berrien** kopurua **% 17,5** hazi delarik aurreko urtearen aldean.

Segmentu 'berdean' onartutako **kontsumorako maileguen** bolumenari dagokionez, **9,6 milioi** eurora iritsi da, 2021ean baino bi aldiz gehiago.

Enpresetan eta erakundeetan espezializatutako dibisioek **802 milioi** euro baino gehiagoko eragiketak onartu dituzte **ekonomia berde eta jasangarriaren** barruan sartutako inbertsioetan. Inbertsio horiek energia berriztagarriak sortzeko eta erabiltzeko proiektuak, mugikortasun jasangarriaren alde egiten duten jarduerak, edo etxebizitza sozialak, babestuak eta energetikoki eraginkorrak sustatzen dituztenak bultzatu dituzte, besteak beste.

Guztira, finantza-taldeak **1.500 milioi euro** baino gehiago bideratu ditu 2022an **finantzaketa jasagarrian**.

## Emitzen kontua

Emitzen kontuko **marjina nagusi guztiek bilakaera ona** izan dute epealdi honetan.

Banku negozioaren "**core**" **sarrerak** nabarmendu dira, **% 4,9ko** hazkundera izan baitute, guztira **903 milioi euro**. Azpimarratzekoak izan dira, batez ere, **zerbitzuen, aseguru-jardueraren eta aktiboen kudeaketaren diru-sarrerak**, **% 6,9** aurrera egin dute eta.

**Interes Marjinak** goranzko joerari eusten dio, **430 milioi euro** ingurura iritsi da, **%2,7** gehiago. Guztira, banku-negozioaren **% 52** zerbitzuen eta aseguruaren diru-sarreraren ekarpenetik dator, interes marjinetatik baino gehiago. Era berean, Erakundearen **ustiapen-gastu guztien % 104** bereganatzen dute.

Enpresa partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorra, batez ere dibidenduen ordainketaren bidez eta bazkidetuen ekarpenaren bidez, **83,7 milioi eurokoa** izan da.

Ondorioz, **Marjina Gordina 945,1 milioi eurotik** gora kokatu da, 2021eko irailean baino **% 9,3** gehiago.

Kutxabankek bere eraginkortasuna hobetzeko eta administrazio gastuak murrizteko ahalegin garrantzitsua egiten jarraitu du, hornidurak indartzen jarraitu duen bitartean.

**Ustiapen gastuak % 2,4** hazi dira, eta **Ustiapen Marjina 490,7 milioi eurora** iritsi da, **% 16,6** gehiago.

Gastuen bilakaera onak, diru-sarrera errepikakorrek sortzeko gaitasunarekin batera, **eraginkortasun ratioa % 50etik** behera kokatu du, zehazki **% 48,08an**, Estatuan diru-sarrerak sortzen dituzten entitateen adierazle onenetako bat.

Taldeak egindako zuhurtzia goreneko kudeaketaren ildotik, eta zalantzazko aktiboen bolumena murrizteaz gain, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen saneamendu-maila zorrotzari eutsi zaio, partida horretara 172,6 milioi euro bideratuta. Horrela, Kutxabankek zalantzazko aktiboen **estaldura ratioa % 115,4ra** igo du.

Taldearen **irabazi garbia 250,5 milioi eurora** iritsi da, 2021eko aldi berean baino **% 42,1** gehiago.

## Kutxabank Taldearen emaitzak, 2022ko iraila

Milioi euro	2022ko iraila	%Δ
Interesen Marjina	429,7	2,7
Zerbitzuen eta aseguruen sarrerak	473,4	6,9
<b>Banka negozioaren core sarrerak</b>	<b>903,0</b>	<b>4,9</b>
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	83,7	114,6
Beste ustiapen emaitzak	-41,6	16,8
<b>Marjina Gordina</b>	<b>945,1</b>	<b>9,3</b>
Ustiapen gastuak	-454,4	2,4
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>490,7</b>	<b>16,6</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-172,6	-19,6
Beste irabazi eta galerak	26,1	-27,4
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>344,2</b>	<b>42,3</b>
Zergak eta bestelakoak	-93,8	42,8
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>250,5</b>	<b>42,1</b>